

**BASERRIA:
LEGE BERRIAK, BIZIMODUA AURRERA**

Urte asko pasa dira Diego Angulo jaunak bere liburua «Derecho Privado de Vizcaya» (1903) idatzi zuenetik. Hantxe bertan Jabetza Erregistrotik ateratako praktikari esker, ordurako -eta gerorako-, Bizkaiko Zuzenbide Pribatuari eta euskal baserriari buruzko ohar egokiak egiten ziren, batipat orduko baserrien egoera aztertu ahal izateko. Liburua mende hasierako korronte foralaren barruan sartzeaz aparte, aski ezaguna da legegizonen tartean osterara ere bertara bueltatzeko. Orrialde askotan zehar, lehen esandako ikuspegi juridiko batetik orduan Bizkaiko zuzenbide foralak zituen kezka eta arazoei erantzuteko eta erakusteko modu egokia aurkitzen da idazki horretan eta beraz abiapuntu gisa balio zaigu, euskal baserriari dagokion legedi berraren bi adibide aztertu nahi dugun oraingo honetan.

Horrexegatik liburua agertu zenetik larogei ta lau urtetako gunea igaro denean zera esan dezakegu: autoreak eta beste askok ezagaturiko errealitate baserritarra gogorki aldatzen doala. Handik eta hemendik eguneroko deman baserri munduarekin harremanetan gabiltzan legegizonok, gure aurrean ikusten dugu, zirkinik egin gabe, baserriaren eta foru sistema zaharraren deuseztapena eta suntsipena. Lurra lantzeko tekniken aldaketa dela medio, lurgintzaren produktu berriak direla bitarte, aurreko belaunaldiak ezagutu izan duten baserriaren bizimodua gainbehe-

raka dator, apurka apurka, gure egunotan.

Ez da izan, ez, ziorik txikiena legeen aldakuntza. Izan ere, Bizkaiko sistema foralak sustengaturiko baserriaren batasuna, maiorazgo edo primutasuna (gogoratu Etxahungo Barkox), etxeko (baserriko) bizimodu komunitatea eta lurrarekiko atxiki-menduekin nolabait bermatuta zegoen gizarte moeta hau.

Sistema honen tresna baliagarriena, besteak beste, kapitulazioak ziren, hots, eskontz kontratuak, haien bidez arautzen baitzen etxeko bizimodua, hiru belaunaldien artekoa (guraso zahar-rrak, senar-emazte gazteak eta horien ondorengoak). Hau guztiau, halabaina, ezagunegia da eta maiz irakurria ere euskal literaturan (esaterako elaberri tradizionalen), guri interesatzen zai- gun xedetik aldentzeko, hau da, sistema klasiko honen halako bilakaera puntuak bihur daitezkeen lege berriak aztertzeko.

Egun kasurako Bizkaiko Lea-Artibaiko eskualdean bederen, aurreko sistema klasiko honi lotuta agertzen den azken belaunaldia gerra ostea da, 1940-1960 urteetako tarte horretan ez-konduak, hortik honuntza ez baita ageri sentidu forala, foruare- kiko joera, baserria eta lurrak transmititzerakoan. Bulego juridi- koetan ikusten diren azken ezkontz kontratuak data horretakoak dira, geroagoko urteetan tradizioa galtzen baita, donazioaren bi- dea gero eta gehiago zabaltzen delarik.

Aldaketaren arrazoiak era askotakoak dira: baserriak famili barnean garrantzia galtzen du eta baserritar hutsak, bizimodu berriak bultzatuta, kalera jeisten direlako, bere irabazpideak ka- leko lantegietan eginez; gainera lehen esandako lurgintzaren teknika berriak, abelgintza, basogintza eta abar... denak lurraren eta baserriaren explotaziorako eskema juridiko forala aldatzen doaz. Ondorioak ere, ezagunak dira baserritarren tartean: kasu gehienetan baserrirako gelditzen ez diren seme alabak Amerike- tara joan ordez, herrietako lantegi zein dendetan enplegatzen dira eta baserri lanetan ihardun beharrean, langile industrialak nahiz kaletarrak egiten dira.

Bestalde ere, lege foral honek oraindik indarrean dirau eta

beraren bidez, baserriaren erregulazioa ez zaio esandako egoera sozial berri honi ondo egokitzen. Hortik datoz, hain zuzen ere, oraintsu egiten ari diren Bizkaiko Zuzenbide foralaren erreformarako saioak eta bide beretsutik ere doaz legegizonen bultzatzen dituzten legislazio honen aspektu ezezkorren kontrako aha-
leginak, hala nola foru eskontz errejimenaren aldacintasunaren kontrakoak. Halare saio horiek ez dute legislazio mailan emaitza konkreturik ikusi, egiteko baitago Euskal Parlamentuan (horretarako eskudun den erakundean) beharrezkoak diren proiektua eta eztabaidak.

Bitartean, haatik, badatozkigu egoera horri jotzen dizkioten lege berriak eta horiek aztertzeraz goaz orain, lehen azalduerikoa ahaztu gabe, lege berri horiek harreman handia baitute baserriaren eta zuzenbide foralaren etorkizunarekin.

A) Nekazal maiztergoari buruzko legea (1980)

Lege farnatu honen bitartez aspaldiko baserri maizterrak zirenak baserriaren etxeguntzari hel dakizkioke, epe jain batzutan. Eta heltzea ere, anitz kasutan gertatzen ari den fenomeno da. Epaitegietara jo gabe, askotan maizterrak nahiago izaten du jaubarekin konpondu, salneurri jakin batez, baserriaren jaubetasuna eskuratzeko.

Lehenengo pausua lortuz geroz ez da, ordea prozesua amaitu, eskuratzeko orduan arazoak planteatzen baitira alderdi askotatik, legeak onarturiko eskubide honen efektibitatea nolabait oztopatzen dutenak: batetik eskritoretan baserrien deskribapenak oso zaharkiturik aurkitzen baitira, honek neurketa, planu eta amojonamentu berria eskatzen dituelarik; bestetik ere eta aurrekoaren ondorio bezela, baserrietan hain garrantzitsu diren bide-zorren prolema planteatzen da, eskritura zaharretan ez baita agertzen, inolaz ere, ondorengo bide edo bide-zorren arrastorik, salbuespen batzuk izan ezik. Azterna nabarmenenak ere topagaitzak bihurtzen dira. Bestela ere lurren neurriak, mugak eta askotan ere izenak identifikatzeko arazoak izaten dira. Honek guztionek eskatzen duena zera da: eskuratzeko orduan, eskritura berriak egiterakoan, baserriaren deskripzio berria egitea, egungo

errealitateari egokitua eta era berdinean geroko arazoak (auzokoekin batipat) kentzeko gai dena.

Ez da hori halabaina gauza bakarra. Kontzertu Ekonomikoek Euskal Ahaldundiei emandako ahalmenei esker, hauexek badute eskuduntza baserriaren eskurapena arautzen dituen zergen gorabeheretan. Eta Bizkaiko Diputazioak esaterako zerga honen textuan eskualdaketa zerga kenketa edo exentzioa onartzen du, baserriaren eskurapena derrigorrezkoa den kasurako soilki eta ez noski jaubearen eta maizteraren arteko akordioa dagoen kasurako. Gutxienez ulergaitza da desberdintasun hau, batipat gerokoan onartzen bada zergen kenketa guraso eta semeen arteko baserri eskualdaketa, hartzailea hamar urterako baserriaren explotazioan konprometatzen delarik.

Gure ustez ez dago hemen berezi beharrik. Kasu bietan eskualdaketa dago (borondatezkoa zein derrigorrezkoa) eta kasu bietan hartzailea edo erostailea baserritarra bada eta baserrian lan egiteko konpromezua hartzen badu, biei aplikagarri zaie zergen kenketa, bestela ez bailitzake abantail hori bidezkoegia izango. Are gutxiago Ahaldundien filosofia baserritarrei laguntzea bada eta gauza jakina izanik gainera, Epaitegietako salneurriek edo akordioen bitartekoek, kasu gehienetan, diru mordoxka suposatzen dutela.

Beraz nolana ere, egoera hau errekonozitu beharra dago eta era berean baserria eskuratzeko aukera dutenei laguntza fiskal hau eskeini, baserrian iharduteko asmorik badute bederen, asmo horren kontrola gogorki eginez, espekulazioa eta maula arras uxatzeko.

B) Ley 49/1981 del Estatuto de la Explotación familiar agraria

Lege honen bitartez, Estatuak nahi zuen, besteak beste, baserri sendo eta bateratuak sortu, luraren zatiketa eta apurketa uxatuz. Bizkaian, halare, ez du ematen ezagupen handirik izan duenik lege honek. Eta hain zuzen ere bera dela medio, lehen aldiz, euskal zuzenbide foralean hain tradizionalak ziren baserriko testamentu amankomunatu eta alkar poderoso edo mandata-

ri bidezko testamentuak (nekazal explotazioaren lurren batasuna jagoteko lanabes baliotsuak) Espaini osorako hedatzen ziren, kode zibilaren kontrako xedapenak arautz eta batipat mendeetan zehar eskema foralean bizi diren lehen aipaturiko erakundeak, zuzenbide orokorrean ere onartuz. Hemendik hasi da, ezpairik gabe, autore batzuk deitu duten «deskodifikazioa» (Aretxederra, Revista Juridica de Navarra 1,1986) edo lege prozesua, zeinen bidez, kode zibilaren gainetik (eta indarrean diren Euskal konpilazio foralen gaindi ere, gehituko genioke geuk) izaera administratibozko legeak harreman juridiko pribatuetan sartuak hasiak dira, arau zibilen (orokorren nahiz foralen) lehen-tasuna apurtzen delarik.

Baina ez da horretan bukatzen lege honen garrantzia, beste arlo batzutarra ere hedatzen baita. Ezarri ere, lege honek zerga kenketa interesgarri batzuk ezartzen ditu alargunaren (% 100) zein explotazioko jarraitzailearen alde (%50) baserri lanetan jarrarrituz geroz. Era berean aspalditik moztuta edo Jabetza Erregistrotik pasa barik duten baserritarrei beren tituloak gaurkotzeko modu erreza eskeintzen zaie, horrek duen abantaila osoaz.

Beraz, filosofi, printzipio eta errealitate oso baten karta edo deklarazioa da lege hau. Eta abantaila guzti horiek dokumentu baten menpean jartzen dira, hots, Ahaldundiek emandako deklarazio baten azpian, azken honi baitagokio baserrirako explotazio agrikolaren izaera hori deklaratzeko, gerokoan aplikagarri izan dakizkion esandako aurrerapen guztiak.

Orain arte aipaturiko sistemak eta legislazioak zera erakusten digu, bete betean: lurrarekiko kezka, lurgintza eta baserrigintza gaurkotu baten ardura. Gaur egun euskal baserriaren soziologia aldatu egin da eta berarekin batera ere baserritarrarena. Legeak datozen heinean, baserriaren errealitatea eta honi buruzko erregulazioa ere aldatzen joango da. Horrexegatik ahalegin handia eskatu behar zaie dema honetan tarteko diren denek: Eusko Parlamentuari ahal den azkarren Zuzenbide pribatu foralaren erreformari hel dakion, baserriaren gaurkoa kontutan hartuta; Ahaldundiei lege berrien bitartez datozen abantailetan

(eskualdaketan zein explotazio tekniketan) laguntza eskeini diezaizen nekazariari eta azken finean baserritarrei berei, bereziki oraingoan lurren jabetasuna lortu dutenei, gainean duten aldaketa izugarriari eta eskuratze prozesu horretan egin duten aukerari heltzeko gai izan daitezzen, egungo giroak galdatzen duen kompetibitatearen maila lortu arte.

Bestelakoan alperrikako ahaleginak izango dira guztionak: legearenak, erakundeenak eta baserritarrenak, eta lege hauek bultzatu nahi duten helburua, alegia, baserritarrei laguntza ematea, historian sarri gertatu izan ohi denez, berriro ere ezabatua eta deuseztatua ikusiko dugu.

Andres Urrutia